

Juan Ramon Makusoren poesia

Juan Ramon Makuso's poetry

Maite LÓPEZ LAS HERAS

Laburpena

Juan Ramon Makuso errenteriar poeta eta filosofoaren ibilbide literarioaren azalpen bat emango da. 2021ean *Haragi hosto* poesia liburua kaleratu zuela aitzakiatzat harturik, hasieratik hona idatzi dituen saiakera zein poema liburuen deskribapena egingo da, filosofia eta poesia elkarri lotuta egotea posible dela erakutsiz. Ondorengo testua, bada, M. L. L. azkoitiar poeta eta itzultzaileak irakurri zuen 2021eko urriaren 30ean, Koldo Mitxelena Liburutegian, azken liburuko aurkezpenean.

Gako-hitzak: Makuso, poesia, filosofia, poeta, filosofoa.

Abstract

This work will provide an explanation of the literary career of the poet and philosopher Juan Ramon Makuso. Under the pretext of publishing the poetry book “Haragi hosto” in 2021, a description of the essays and poems he has written since the beginning will be described, showing that it is possible that philosophy and poetry are intertwined. The following text was read by the Azkoitian poet and translator M. L. L. on October 30, 2021, in Koldo Mitxelena, at the presentation of his latest book.

Keywords: Makuso, poetry, philosophy, poet, philosopher.

NORA EZA
Ustezko bideak, urak
eraikitzen ditu.
Hostoak, haizearen bideak
zeharkatzen ditu.
Maitasunaren beroak, suak
urtzen ditu.
Gizakiaren bidaiak, lurrak
estaltzen ditu.

Bizitzeak hil egiten du (2004), Juan Ramon Makuso

Poeta eta filosofoa. Sortzaile eta jakituriaren maitale. Pentsamendua eta poesia, biak ala biak, eskutik helduta, hitzaren hatz luzeen bitartez txirikordatuta, *bizitza* hitza bizirik mantentzea delako.

Hasieran hitza zegoela aldarrikatzen dute filosofia erlijiotzat eta poesia jainkotzat duten etengabeko gogoetaren artisauaren bertso-lerro uhinduek, olatuek itsasertza besarkatzean nola. Hitzak geziak dira, Kupidorenak bezalatsu, punta urrekarakoak zein berunezkoak daude, eta haietatik jasotzen du poetak bizitza, errealitatearen aterako giltzak.

Hausnarketaren hastapenaren hagari lotuta egiten du bizitzaren bidean aurrera, ibilbidea urrezkoa izan ez arren, sirenen kantuak entzun, baina tentaldian erori gabe, tinko, galderez betetako ontzian, erantzunei heldu nahi gabe, itsasoaren zaplaztekoak gaziak izan arren; irmo, itaunak behar dituenak berau izateko. Galderak ez baitu geltokirik. Bizitza ez dago Itakan, itsasoan bertan baino.

Gorputza eta arima, hostoa eta sustraia, hutsa eta infinitua. Mitorik gabeko arrazoiketarik ez dago Makusoren olerki labur bezain sakonetan. Muthos-etik logos-erako urratsik ez da ageri, bidea bera baizik, pausoa ibilbidea bera delako, orainean askatzen den erromesaldia, gaurkoan

errotzen den oinkada barea, haren poemen konpas berean. Hemen eta orain, “Hic et nunc” Zizeronen hitzetan.

Axularren esanarekin bat etorriz, bizitzaren ardatz kronologikoan atzera-aurrerarik gabe, erdian kokatzen du izatearen mugarrria, ez iraganean, ezta etorkizunean ere, orainaldian baizik.

Platonen haitzuloaren alegoriaren taupadak entzun daitezke, bestalde, gure poetaren bertsoen atze-oihalean. Mundu sentikorra eta mundu ulergarriaren izateak batzen ditu, zentzumena eta ezaguera baitira poemak margotzeko erabiltzen dituen paletako bi kolore nagusi.

Mundura etortzeaz bat, ibilian bidea egiten ari garela gogorarazten du hasieratik Makusoren poesiak, heriotza dela abiapuntu. Haren poemak in itinere munduratutako halabehar metafisikoak. Gizakia, aldiz, sortzearen emaitza.

Delfosko orakuluraino bidaiatzen du norbere burua ezagutzea atzemanezina dela jabetzeko, eta Platonek Sokratesi buruz esandakoaz gerutuago, “asko dakien horrek ez du bere burua ezagutzen” dio Makusok, ezagutza absolutua gizakioi ez dagokigulako. *Gure antzekoak dira*.

Etengabeko bilaketan datza, hortaz, heinik handienez, poeta honen poemen funtsa. Atzoko galderak gaurkoak ere badirela du gogora ekartzeko, “Carpe diem”-aren ikurrina astinduz, biharko fantasiak utzi eta orainean bustitzeko ahaleginetan. Simone Weil pentsalari frantsesaren hitzen arrastoa ere nabarmena da gure poetaren lerroetan, adiskidetasuna naturaz gaindiko oreka dela diolako lehenengoak, aurkakoen batasuna biek.

Kezka existentzialez gain, lurrekoak ere poetaren begietan daude une oro. Marxen *Kapitala*, esaterako, alemaniar filosofoarekin bat eginez, dirua jainkotzat duen gizartea kritikatzeko: jaio, lana egin eta hil. Denbora, izan ere, kapitalaren eskutik eraiki zaigulako.

Greziako *polis*-a gogora ekarriz, oroimenean gordeta duen hiriaren eraldatzea deitoratzen du, Xabier Lizardiren bertso batetik jasotako *Hiri gorazarre* poesia liburuan. Kale zaratatsuetako isiltasuna, gizakion arteko inkomunikazioa, etorkinak edo dirurik ez duenaren babesgabetasuna dira, besteak beste, poetaren kezka nagusiak. “Gizakia da hiriaren oztopo” dio Makusok, Wittgenstein-en etika eta estetika behin eta berriz gogoratuz, “kolorerik gabe biluzik baitira formak”.

Heriotza, aitzitik, lehen begiratuan dirudienaz urrun, gai erabat lur-tarra da Makusoren olerkietan. Estoikoen modura, bizitzaren iheskortasuna onartzen du, hilko garela gogoratzeak bizirik gaudela esan nahi duelako. “Huntzak ibilbidean heriotza du amets”; poetak gauero irriz jasotzen du Morfeoren bisita. Huntzaren ibilbidea poetaren hil-bidea da.

Pavesseren hitzen arrasto likatsu bezain distiratsua nabari da Makusoren bertso-lerroetan, italiar poetarekin bat baitator heriotzak orentzat duela begirada gomutaraztean.

Hiltzea bakarka egiten dugun ekintza den gisara, **bakardadearen** aipua oso ohikoa da Hopper-en margolanekin erka daitezkeen olerki koloretuetan. Jendez inguraturik egon arren, bakarrik dagoela sentitzen duelako hainbatetan poeta-pentsalariak, *odolak ura garbitzen duen heinean*. Monet-en tren-geltoki lausotuen tankerako irudiak sarritan dakartza gogora bakartasunaren hezurdura poemetan margotzeko. “Zeruko izarrak ere ez daude bakarrik, baina bakoitza bat da” baieztatzen du *Oraina galdua* deituriko solasaldi platonikoan, poesiazko filosofian. Poesia baita haren babesa, poesia bere mundu. Poesia, Joan Margaritek zioen moduan, miserikordia etxea.

Txillidak eskulturarekin haizea orraztu zuen moduan, Makusok hitzekin ferekatzen ditu gizakiaren betiereko kezkarik orokorrenak zein banakoen sentimendurik barrenekoenak.

Bizitza ibaiko ur iheskorrekin parekatzen du, hain kideko zaion udazkeneko hosto urrekararen sehaska likidoaren bidaiarekin, *gizakion kontzientzia biluzia agerian utziz*, haizeak putz egindako orbelak haragi gorria iraunkorra dela erakusten duelarik.

Egia bilatzeko, akaso, bakarrik egotea ezinbestekotzat jotzen du filosofoak, begiak, egia nahi ez, eta iritzia baitu erditzen. Heidegger alemaniar filosofoaren zantzuak ageri dira *aletheia* edo egiaren bilaketa etsian. Egia behin-behinekoa dela dio Poperrek, eta Makuso ados ageri da zauri eder horrekin. Txantxangorriak, ordea, bazekien, eta inori ez zion kanta-tu, egiaren bidea gezurra dela.

Eta gezur guztien gainetik, **maitasuna**. Gizakiok bakardadea maitasunarekin ordezkatu nahi dugula adierazten du poetak, maitasuna errazegi *esaten* dugula auhendatzen, hura *azaldu* beharrean. Kandelaren garra nola, haizeak itzaltzen badu, ez zen maitasuna, hala dio berak.

Halere, amodioa da gizakion arteko lokarria, *gizadiaren* haria, zu eta ni elkartu edo bananduko gaituen Moiren patuzko erabaki mehea. Maitasuna, amairik gabeko opera. Bizitza, opari bat.

Bibliografia

- Makuso, J. R. (2004). *Bizitzeak hil egiten du*. Bilbo: Ediciones Beta.
- Makuso, J. R. (2006). *Hiri gorazarre*. Bilbo: Elea argitaletxea.
- Makuso, J. R. (2009). *Huntza hezur berritan*. Donostia: Erein.
- Makuso, J. R. (2009). *Joan Margarit. Misericordia etxea*. Donostia: Meettok.
- Makuso, J. R. (2014). *Hitzak argi*. Iruñea: Pamiela.
- Makuso, J. R. (2018). *Oraina galdua. Solasaldi platonikoa*. Donostia: Erein.
- Makuso, J. R. (2021). *Haragi hosto*. Donostia: Balea Zuria.